


# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXI

SAN SEBASTIÁN 15 DE AGOSTO DE 1914

N.º 1110



SAN IGNACIO DE LOYOLA

# INAZIO

## GURE PATROI AUNDIYA

---

**G**IPIZKOA guziyan ta baitare Bizkaya-n, gogo aundiz jaitzen da bere zaindariaren egun zoragarriya.

Gipuzkoar leñargi au Eleiza-k aldarietara jaso zuben egun beretik, piñtu zan euskal biyotzeten chingar sutsua Loyola-ko seme zorioneko onen ganako, ta egunetik egunera, ta geruago ta beruago, senduago ta pizkorrago, asaltzen du aren ganako naitasun betikua.

Euskal-erriko basarririk arlotienetan arkituko degu beti murrutik zintzilik aundiya edo chikiya, apaiña edo ez, Inazio, donea-ren irudi maitagarriya; ta eche audi ta jauregietan, lekurik agerienian ikusiko degu lauki edertasunez jantziya gure *Patroi aundiari* donkitua. Uri otsaundiko eleiz ikusgarrietan, edo mendi baztarreko eleizacho apurretan, beti agertuko da gure begiyan aurrian, tokirik ederrenian, lekurik apañenian, gure zaindari zerukua.

Iristen dianan egun gogoangarria, Loyola-ko seme argidotarraren egun atsegina, euskal biyotzeten sortu ta abuetatik irteten dan sendo ta pizkor kanta estiya, kanta alaya, kanta ūamurra: *Inazio, gure Patroi aundiya*. Eta ala neška ta mutill koškorrik, nola mirabe gazte bular-tsuak, eta baitare aitona amon buru churiyak, danak baltzan deadar egiten dute: *Inazio, gure Patroi aundiya*. Alaitasun au pizkortzen du te Eleiz soñu zoragarriak, chistulari ta musicalariak, berak ere sendo ta gogor beren antzera goituaz: *Inazio, gure Patroi aundiya*.

Guk ere egun gogoangarri ontan ori bera esan nai degu: *Inazio, gure Patroi aundiya*.